

Bixente Serrano Izko

Jakin-mina eta plazeboak

B

izpahiru aste duela, arreta eman zidan Joan Margarit poeta katalanaren erran batek Juan Ramon Makusok hari eginko elkarrizketakoak: “Memoria historikoa’ oximoron bat da”. Biribila errana, eta kitzikagarria, guztiz irekia historia kontuekin jira-biraka ibiltzen gaude-nontzat, dela profesionalki, dela jakin-min hutsez, dela ideologikoki –oi, historia ideologizatuen arazo saihestezina!–.

Bere horretan, badu ematen zer pentsa. Hain zuzen, bi kontzeptu guztiz desberdinek bertze kontzeptu bat sortu dutelako. Izan ere, memoria ez da historia, eta historia, zientzia edo narrazio gisa, memoriaren –eta bertze kontu askoren– tratamendu (manipulazio, terminoaren zentzurik onenean edo txarrean/gaiztoenean) bat da. Hortaz, historiak gure memoria –eutsi nahi diogun memoria– gezurtatzen baldin badu, nola lotu kontzeptu bakar batean memoria eta historia, “memoria historiko” horretan alegia, oximoron bat egin gabe?

Dena dela, ez nago batere seguru ez ote dugun bertze figura erretoriko bat –oximoron ez bada, bai behintzat paradoxa– egiten, iragana eta historia lotzen dituen bertze kontzeptu honekin: “Iraganaren historia” alegia. Nahiz eta itxura osoz eta gure kulturaren arabera, zer izanen ote da historia, iraganarena ez bada? Sentitzen dut, baina ezetz erran behar berriro. Guztiz desberdinak dira iragana eta historia, historia eta memoria diren bezain desberdinak. Begi bistako egiazta-pen bat aski da horretaz jabetzeko: zer pisu astuna duen iraganak guztiongan, horretaz kontziente izan ala ez –horretaz, printzipioz, historialariok izan beharko genuke kontzienteenak–, eta zer axolagabe garen askotan historiarekin; axolagabe, bere zentzu inozoenean eta gaiztoenean, segun: erran nahi baita, historiak ezer jakin nahi ez dugula askotan, edo haren erabilera maltzurra hobesten dugula sarri.

Iragana, historia, memoria: hiru kontzeptu guztiz desberdin, elkarren artean kontraerrankorrak gehiegitan. Iragana, korda luzekoa da, luzeenekoa: gure gaurkoa neurri handi batean baldintzatu diguna, guk jakin ala ez. Memoria, pertsonala



JOSU SANTESTEBAN

zein kolektiboa, gure oroitzapenek osaturikoa: edo gure auto-terapiak hautatu eta bideraturiko oroitzapenek eta ahantziek eraturik, edo nolabaiteko historia kontzienteagoak gure baitan utzitako arrastoen gainean eraikia. Historia, beraz, iragan eta memoriaren aurrez aurreko ertzak lotu nahi dituen zubia da. Askotan, lamien lana: ilargiaren pean egina eta egunsentiarekin desegina, gauean eraikia eta argiaren lehen zantzuetan suntsitua.

Horixe historiaren arazoa: iragana eza-gutzerakoan, nahitaez, gure memoriatik, gure auto-terapiatik (pertsonala edo kolektiboa) abiatu behar duelako. Eta jakin, badakigu nolakoak izan daitezkeen auto-terapiak: auto-engainu amorratuak –plazebo izateraino– edo aditu zintzoek idatziriko prozedurei jarraikiak; auto-engainuei eusten diegunean, orduan dugu oximoron hutsa den “memoria historikoa”, oso baliagarria, guztiz eskergarria

« Historia, iragan eta memoriaren aurrez aurreko ertzak lotu nahi dituen zubia da. Askotan, lamien lana da (...).

» Tamalez, mundua mundu denetik badaude adituak, zintzo-zintzo plazeboak errezetatu nahiago dituztenak: adibidez, iraganeko Nafarroako konkistaren memoria historiko kolektiboaren oximorona (plazebo gisa) hobesten dutenak

izan daitekeena; historialari zintzoen prozedurekin lorturiko botikak, aldiz, desatseginak gerta dakizkiguke, okerrera goazelako sentipenak pitzuz gure erraietan: areago, historialari zintzoenak direla hobekien dakitenak inoiz ere ezin dutena bere osoan iragana antzeman.

Tamalez, mundua mundu denetik badaude adituak, zintzo-zintzo plazeboak errezetatu nahiago dituztenak: adibidez, iraganeko Nafarroako konkistaren memoria historiko kolektiboaren oximorona (plazebo gisa) hobesten dutenak. ■